PLT-C-2026-0022
IIG/acn

PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA

ZERBITZU KONTRATUA:

ESKORIATZA-ARABAKO MUGA TARTEKO BIZIKLETA BIDEA (I04-018F) ERAIKITZEKO PROIEKTUA IDAZTEA. B FASEA. 61,860 K.P. ETA 65,122 K.P.-EN ARTEKO TARTEA

(Gakoa: 5-BI-85/2025-B-AT)

ACTAb2129846-808f-4188-83dc-2f39cd01421e

PLT-C-2026-0022
IIG/acn

ESKORIATZA-ARABAKO MUGA TARTEKO BIZIKLETA BIDEA (I04-018F) ERAIKITZEKO PROIEKTUA IDAZTEA. B FASEA. 61,860 K.P. ETA 65,122 K.P.-EN ARTEKO TARTEA

Gakoa: 1-BI-85/2025-B-AT

AURKIBIDEA

1. PRESKRIPZIO OROKORRAK ETA KONTRATUAREN OBJEKTUA 3
2. AURREKARIAK 4
3. EGUNGO EGOERA ETA JUSTIFIKAZIOA 5
4. PROIEKTATU BEHARREKO ETA EGIN BEHARREKO LANEN DESKRIBAPENA 10
5. BALDINTZA TEKNIKOAK 12
6. AHOLKULARIAREN ESKURA JARRIKO DEN DOKUMENTAZIOA 12
7. ENPRESA AHOLKULARIAK EGIN BEHARREKO LANAK 12
7.1. Lan topografikoak 12
7.2. Trazadura eta zuinketa 13
7.3. Geologia eta Geoteknia 13
7.4. Drainatze eta Hidrologia 15
7.5. Egiturak, hormak eta fabrika obrak 16
7.6. Zoruak 16
7.7. Lur-mugimenduak 17
7.8. Obrek irauten duten bitartean trafikoa antolatzeko proposatutako irtenbideak 17
7.9. Seinaleak, balizak eta babesak 17
7.10. Bide segurtasuna 18
7.11. Argiztapena 19
7.12. Lursailak okupatzea 19
7.13. Proiektuak ukitzen dituen zerbitzuak 21
7.14. Obra plana 22
7.15. Ingurumen-Inpaktuaren Azterlana 22
7.16. Segurtasun eta Osasun Azterlana 23
7.17. Hondakinak kudeatzeko azterlana 23
7.18. Prezioen justifikazioa 23
7.19. Administrazioari berri emateko aurrekontua 24
7.20. Kontratistaren sailkapena 24
8. LANEN ZUZENDARITZA 25
8.1. Taldeak eta laguntzaileak 25
9. PROIEKTUA OSATZEN DUTEN DOKUMENTUAK 25
9.1. 1. DOKUMENTUA: MEMORIA ETA ERANSKINAK 25
9.2. 2. DOKUMENTUA: PLANOAK 26
9.3. 3. DOKUMENTUA: PRESKRIPZIO TEKNIKO PARTIKULARREN AGIRIA 26
9.4. 4. DOKUMENTUA: SEGURTASUN ETA OSASUN AZTERLANA 27
9.5. 5. DOKUMENTUA: AURREKONTUA 27
10. DOKUMENTUA AURKEZTEA 28
10.1. Paperezko dokumentazioa 28
10.2. Euskarri informatikoa 28
10.3. Fitxategien ezaugarriak 29
11. IDAZTEKO EPEA 29
12. KONTRATUAREN PREZIOA 30
13. LANEN ORDAINKETA 30
1. ERANSKINA - JUSTIFIKAZIO EKONOMIKOA 31
2. ERANSKINA - ESKORIATZAREN ETA ARABAKO MUGAREN ARTEKO BIZIKLETA BIDEA ERAIKITZEKO PROIEKTUAREN ABIAPUNTUKO SOLUZIOA, AZTERTUTAKO TARTEAN 32

ACTAb2129846-808f-4188-83dc-2f39cd01421e

1. PRESKRIPZIO OROKORRAK ETA KONTRATUAREN OBJEKTUA

Baldintza agiri honen objektua da lanak deskribatzea eta proiektua idazteko oinarri gisa balioko duten baldintzak eta irizpide teknikoak zehaztea, aholkularitza enpresak hori jasotzeko erabiliko dituen dokumentuak zehaztearekin batera, Administrazioak lana onartu ahal izateko.

Kontratu honen eraikuntza-proiektua egiteko, proiektugileari emango zaizkion funtsezko bi dokumentu hartuko dira oinarritzat: 2007ko eraikuntza-proiektua (Eskoriatza-Arabako muga tarteko bizikleta-bidea eraikitzeko proiektua, 18,89 km-ko luzerakoa) eta 2025eko bizikleta-bidearen egungo egoeraren azterketa (plataformaren egungo egoeraren balorazioa, behin betiko trazadura berriaren proposamena eta berrikusitako prezioak barne).

Bi dokumentu horiek bizikleta-bide osoa hartzen dute (17,3 km inguru), baina azterlan horien erreferentziazko kilometro puntuak (KP) ez datoz bat egungoekin. Bidea 47,835 eta 65,122 KPen artean katalogatuta badago ere, aurreko azterlanek 1,375 eta 18,662 KPen artean kokatzen zuten. Proiektua errazago uler dadin, 2007ko eraikuntza-proiektuko KPak hartuko dira erreferentziatzat.

Bi lanek bizikleta-bidearen luzera osoa hartzen badute ere, kontratu hau 61,860 eta 65,122 KPen arteko tarteari dagokio (2007ko eraikuntza-proiektuko 15,400 KP eta 18,662 KP). Tarte horrek 6.145 metroko luzera du guztira, Leintz-Gatzaga eta Arabako lurralde-mugaren arteko tartean dago.

Adjudikaziodunak, kontratuaren zuzendaritzaren gainbegiradapean, emandako dokumentazioa berrikusi, baliozkotu, eta behin betiko trazadura, trenbidearen egungo egoera eta indarrean dagoen araudia kontuan hartuz egokituko du. Hori guztia I04-018F bizikleta-bideko 61,860 eta 65,122 KPen arteko zatian (2007ko eraikuntza-proiektuko 15,400 KP eta 18,662 KP).

Objektua da Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako eta Lurralde Estrategiako Departamentuarentzat zerbitzu kontratu bat egitea, honako lan hau egiteko:

IZENBURUA:	ESKORIATZA-ARABAKO MUGA TARTEKO BIZIKLETA BIDEA ERAIKITZEKO PROIEKTUA IDAZTEA. B FASEA
AZTERLAN MOTA:	Eraikuntza proiektua
UDAL BARRUTIA:	LEINTZ-GATZAGA
LURRALDEA:	GIPUZKOA

Kontratatzen den lana proiektu bat idaztea da, indarrean dagoen legeriak horri buruz eskatzen duenaren arabera. Honako dokumentu hauek izango ditu: Memoria eta eranskinak, planoak, preskripzio tekniko partikularren agiria, segurtasun eta osasun azterlana eta aurrekontua. Baldintza Agiri honetan adierazitakoaz gain, ulertuko da aipatutako proiektuaren idazketan bete egingo direla indarrean dauden lege-xedapenetan ezarritakoa eta kontratatutako lanaren edukiarekin lotutako araudi eta jarraibide teknikoak.

Dokumentu horiek eta agiri honetan zehaztutako gainerako dokumentuak beharrezkoak izango dira zehazki definitzeko egin beharreko obrak eta horiek egiteko modua. Dokumentu horiek aukera emango dute ingurumenaren, hirigintzaren, lursailen erreserbaren, jendaurreko informazioaren eta desjabetzeen arloko izapideak kudeatzeko. Era berean, erabili beharreko materialen eta gauzatu beharreko obra-unitateen normalizazioa ziurtatuko dute, ikuspegi teknikoa eta ekonomikoa uztartuz emaitza optimoak lortzeko. Informazio zehatza ere eman beharko du, obrak guztizko zehaztasunez balioetsi ahal izateko, eta horiek


ACTAb2129846-808f-4188-83dc-2f39cd01421e

egikaritu ahal izateko, dagokion lizitazioa egin eta gero.

2. AURREKARIAK

Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoako Bizikleta Bideen Foru Sarea kudeatzen du lurralde historikoan zehar. Sareak 9 ibilbide eta 106 km-ko luzera ditu, eta horien artean dago I-4 Debarroa bizikleta eta oinezkoen ibilbidea.

Ibilbide horren azken tarteak 17,30 km-ko luzera du guztira. Eskoriatzatik abiatu eta Arabako mugaraino iristen da, Leintz-Gatzaga udalerria zeharkatu ondoren. Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurralde Plan Sektorialean jasotako ibilbideak partez aprobetxatzen du Vasco-Navarro trenbide zaharraren trazadura. Inguru horretan, tunel asko zeharkatzen ditu trenbide horrek, Leintz-Gatzagako desnibela gainditzeko egindako begizta-kurben ondorioz.



1. irudia: I04-018F bizikleta-bidearen trazadura osoa, Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurralde Plan Sektorialaren arabera.

"Gasteiz-Eibar autobidearen trazadura-proiektua"ren Ingurumen Inpaktuaren Adierazpenean jasotzen denez, aisialdirako berreskuratu behar da Vasco-Navarro trenbideak Landa-Mekolalde zatian zuen trazadura zaharra.

ACTAb2129846-808f-4188-83dc-2f39cd01421e

Horregatik guztiagatik, Gipuzkoako Foru Aldundiko Garapen Jasangarriko Departamentuak, 2007an, Eskoriatzatik Arabako mugara arteko bidegorriaren eraikuntza-proiektua idazteko agindu zuen, Vasco-Navarro trenbidearen lehengo trazadura berreskuratu eta, hala, aisialdirako, zikloturismorako eta mugikortasun jasangarrirako erabiltzeko. Hala ere, proiektu hori ez zen gauzatu.

2025eko urrian, Vasco-Navarro trenbidearen plataforma zaharraren egungo egoera zehatz-mehatz ezagutzeko (haren gainekoa zen aipatutako 2007ko eraikuntza-proiektua), Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako eta Lurralde Estrategiako Departamentuak agindu zuen “Eskoriatza-Arabako muga tartean bizikleta-bidearen proiektuak hartzen duen plataformaren egungo egoerari buruzko azterlana” (gakoa: 5-BI-85/2025-AT-ES) idatz zedila.

Nabarmendu behar da, 2023an onetsi zela 157/2023 Dekretua, urriaren 24koa, zeinaren bidez Vasco-Navarro Trenbidearen Euskal Autonomia Erkidegoko tartea, babes bereziko kultura-ondasun deklaratzen baita, monumentu-multzo kategoriarekin, eta hori bete egin beharko da proiektuko jarduketak definitzerakoan.

Adjudikaziodunak, kontratuaren zuzendaritzaren gainbegiradapean, emandako dokumentazioa berrikusi, baliozkotu, eta behin betiko trazadura, trenbidearen egungo egoera eta indarrean dagoen araudia kontuan hartuz egokituko du. Hori guztia I04-018F bizikleta-bideko 61,860 eta 65,122 KPen arteko zatian (2007ko eraikuntza-proiektuko 15,400 KP eta 18,662 KP).

3. EGUNGO EGOERA ETA JUSTIFIKAZIOA

Orain dela gutxi egindako aurretiazko diagnostiko-dokumentuaren bitartez, trazaduraren egungo egoera eta 2007an proiektatu zena alderatu daitezke, eta hala proiektua nola aurrekontua eguneratzeko oinarriak ezarri.

Gaur egun, trenbide zaharraren plataformak egoera heterogeneoa du trazaduran zehar. Zenbait tarteren egoera proiektua idatzi zenean deskribatzen zenaren antzekoa da; beste batzuetan, berriz, narriadura nabarmena ikusten da, batez ere, alderdi hauei dagokienez: drainatze-akatsak, lerradurak –berriak nahiz jada identifikatutakoei dagokienez areagotzen ari direnak– eta erorketa gehiago lur-erauzketako ezpondetan. Orobat, landaredia asko hazi denez, zaila da tarte batzuetara iristea.

Hala ere, azpimarratu behar da ikusi direla zenbait tarte, 2007ko sailkapenean baino egoera hobean daudenak. Itxurazko hobekuntza horren arrazoia da plataforma lehengoratu dela, autobidea eta abiadura handiko linea eraiki bitartean obrarako sarbide gisa erabili ondoren. Tarte horietan plataforma erregularizatu egin da, eta oinplanoko trazadura eta altxaera ere aldatu egin dira.

“Eskoriatza-Arabako muga tartean bizikleta-bidearen proiektuak hartzen duen plataformaren egungo egoerari buruzko azterlana”k sei fase bereizitan banatzen du trazadura osoa, eta modu independentean egin daitezke. Banaketa hori lehendik dagoen bide-sarearekiko konexio-puntuen arabera definitu da; hala, fase bakoitza unitate funtzional autonomo bat da, eta gainerakoak hura oztopatu gabe gara daitezke.

Jarraian, laburpen-taula batean zehaztu dira fase bakoitzaren hasierako eta amaierako KPak (2007ko eraikuntza-proiektuaren erreferentziako KPen arabera), fase bakoitzaren guztizko luzera, eta tarte bakoitzean dauden tunelak.

ACTAb2129846-808f-4188-83dc-2f39cd01421e

SEPARATA	KP (2007ko proiektua)		L (m)	TUNELAK
	HASIERA	AMAIERA		
1	1375	4430	3055	1
2	4430	7520	3090	2 (*), 3, 4, 5 eta 6
3	7520	10100	2580	7 eta 8
4	10100	12790	2690	9
5	12790	15400	2610	10, 11 eta 12
6	15400	18662	3262	-


(*) Proposatutako trazaduratik kanpo uzten da

Sei faseko sektorizazioa bide-sarearekin lotzen duten puntuen eta trazadurak zerbitzatzen dituen guneen arabera definitu da. Zehazki, **1. separata Kuatruena – Mazmela** tarteari dagokio; **2. separata**, **Mazmela – Zarimutz** tarteari; **3. separata**, **Zarimutz – Marin** tarteari; **4. separata**, **Marineko herrigunearen beheko aldearen eta goiko aldearen** arteko barne-konexioari; **5. separata**, **Marin – Leintz-Gatzaga** tarteari; eta **6. separata**, **Leintz-Gatzaga – Araba** tarteari. Marin, Mazmela eta Zarimutz herriguneak Eskoriatzako udalerriarenak dira.

Testuinguru horretan, proiektuaren helburua da egindako azterlanak jasotzen duen azken separata definitzea, eraikuntza-mailan. Hots, **6. Separata** definitzea (**Leintz-Gatzaga eta Araba** arteko tartea), Vasco-Navarro trenbide zaharraren ibilbidearen zati bat modu egokienean berreskuratzeko. Tarte hori, zehazki, 61,860 KParen eta 65,122 KParen artean dago (Leintz-Gatzagaren eta Arabako lurralde-muga historikoaren artean).

Aipatzekoa da 2023an 157/2023 Dekretua onartu zela, urriaren 24koa, zeinaren bidez Vasco-Navarro Trenbidearen Euskal Autonomia Erkidegoko tartea babes bereziko kultura-ondasun deklaratzen baita, monumentu multzoaren kategoriarekin. Proiektuaren jarduketak definitzean, bete egin beharko da arau hori.


ACTAb2129846-808f-4188-83dc-2f39cd01421e



2. irudia: I04-018F bizikleta bidearen ibilbidea; bertan ageri da 2025ean egindako azterlanak aipatzen duen azken tartea (6. separata), xeheki aztertuko dena (Leintz-Gatzagaren eta Arabako lurralde-mugaren arteko tartea).)

Tarte horretako eremuen deskribapena:

- 61,860 KParen eta 62,800 KParen artean: ibilbidea inguruko baserrietara daraman asfaltozko bide publikotik doa.




3. irudia: 61,860 KParen eta 62,600 KParen artean, asfaltozko bide publikotik doa ibilbidea.

- 62,800 KParen eta 63,400 KParen artean: ibilbidea zabor-legarrezko pista batetik doa, muturretan izan ezik, bertan asfaltatuta baitago pista.

ACTAb2129846-808f-4188-83dc-2f39cd01421e





4. eta 5. irudiak: 62,800 KParen eta 63,400 KParen artean ibilbidea zabor–legarrezko pista batetik doa, muturretan izan ezik.


- 63,400 KPan: ibilbideak maila berean gurutzatzen du GI-627 errepidea



6. irudia: ibilbidearen eta GI-627 errepidearen arteko maila bereko gurutzagunea.

- 62,420 KParen eta 63,470 KParen artean: ibilbidea bidezidor batetik doa, GI-627 errepidearekiko paralelo, eta zabor–legarrezko zorua du.

ACTAb2129846-808f-4188-83dc-2f39cd01421e



7. irudia: ibilbidearen bidezidorra, GI-627 errepidearekiko paralelo.

- 63,470 KParen eta 63,900 KParen artean: gaur egun, ibilbide intuitiboak Gure Ametsa jatetxearen aparkalekua zeharkatzen du. Hala ere, jatorrizko ibilbidea aztertu beharko da, eta aztertu beharko da orobat aparkalekuaren ondoko landare-hesiaren atzeko eremua sasiz garbitzeko eta egokitzeko aukera, igarobidea ibilgailuen maniobretatik babesteko.





8. eta 9. irudiak: bidezidorraren eta jatetxeko aparkalekuaren arteko elkargunea, eta aparkalekuarekin muga egiten duen landare-hesiaren atzeko eremua.

- 63,900 KParen eta 64,122 KParen artean: ibilbidea material pikordunezko pista batetik doa Arabako muga historikoraino iritsi arte; bertan hasten da Vasco Navarro bide berdearen Arabako tartea.
- Tartearen hasieran, egungo ibilbidea ez dator bat jatorrizko trenbidearen ibilbidearekin. Horregatik, lurren jabeak zein diren aztertu beharko da, eta, behar izanez gero, jatorrizko ibilbidea leheneratu.

ACTAb2129846-808f-4188-83dc-2f39cd01421e




10. eta 11. irudiak: desbideratutako tartearen hasiera eta material pikordunezko pista.




12. eta 13. irudiak: zabor–legarrezko zorua duen pista, eta ibilbidearen eta Vasco Navarro bide berdearen Arabako tartearen hasieraren arteko elkargunea.

4. PROIEKTATU BEHARREKO ETA EGIN BEHARREKO LANEN DESKRIBAPENA

Etorkizuneko bizikleta bidearen ibilbidea definitzeko, 2007ko eraikuntza-proiektua eta egungo egoeraren 2025eko azterlana hartu dira erreferentziatzat. Adjudikaziodunak dokumentazio hori berrikusi, definizio hori baliozkotu, eta I04-018F bizikleta bidearen eraikuntza-proiektua idatziko du, Leintz-Gatzagaren eta Arabako lurralde-muga historikoaren arteko tarterako, kontratuko zuzendariaren gainbegiradapean. Berrikustean, arreta berezia jarriko zaio Gure Ametsa jatetxearen aldameneko tartea zehatz mugatzeari, badaudelako zantzu batzuk aldatu eta lursailaren kanpoalderantz eraman dela. Hala bada, lurren jabeak zein diren ikertu beharko da, eta jatorrizko ibilbideari jarraituz definitu beharko da trazadura.

Tarte honek gainerakoekin duen desberdintasuna da ez dagoela tunelik, ezta munta handiko egiturarik ere; egoera onean dauden euste horma batzuk ditu bakarrik. 2007ko proiektuak beheko igarobide bat proposatzen bazuen ere GI-627 errepidea gurutzatzeko, aldi baterako baztertu egin da irtenbide hori, exekuzio-kostu handia duelako eta bide horrek trafiko txikia duelako. Horren ordez, dagoen trenbide-pasaguneari eutsiko zaio eta egungo seinaleztapena hobetuko da.

Zati batean, Babes Bereziko Kultur Ondasun izendatutako Vasco-Navarro trenbide zaharretik doa trazadura, eta, hortaz, jatorrizko plataformaren oinarria mantendu behar da. Horregatik, azterlan xehatu bat egingo da, proiektatutako soluzioek ondasun babestuaren kontserbazioa bermatzen dutela ziurtatzeko. Era berean,

ACTAb2129846-808f-4188-83dc-2f39cd01421e

obrak ondare-balioan zer eragin duen ebaluatuko da, eta neurri zuzentzaile egokiak zehaztuko dira. Hori guztia azterlan historiko-arkitektonikoaren eranskinean jasoko da.

Proiektuari ingurumen-inpaktuaren ebaluazio sinplifikatuaren prozedura gainditu beharko du; izan ere, abenduaren 9ko 10/2021 Legeak, Euskadiko Ingurumen Administrazioarenak, II.E eranskineko proiektuen artean sartzen du (Ingurumen ebaluazio sinplifikatuaren mende dauden proiektuak), E9 Taldean (Beste proiektu batzuk), 9.n) apartatuan: “Bizikletentzako eta oinezkoentzako bide berriak, 2 km-ko edo gehiagoko luzera jarraitua edo etena dutenak, urbanizatu gabeko eremuetatik igarotzen badira”. Ondorioz, proiektuarekin batera ingurumen azterketa bat egingo da, 10/2021 Legean ezarritako edukiak izango dituena. Azterketak obraren esparrua jaso beharko du, eta sortuko diren eraginen beren ondorioz komeni den eremu guztia sartuko du hartan.

Gainera, tarte hori Aizkorri-Aratz Parke Naturaletik igarotzen denez, Natura 2000 Sarearen barruan sartzen da. Horregatik, proiektua idaztean, aintzat hartu beharko dira inplikazio legal, ingurumeneko eta operatibo zorrotzak.

Euskadiko Ingurumen Administrazioaren 10/2021 Legea betez, bizikleta-bidearen zoruaren diseinuak bermatuko du erabilitako materialen % 40, gutxienez, birziklatua, azpiproduktuak edo bigarren mailako lehengaiak direla. Adjudikaziodunak, kontratuaren zuzendaritzaren gainbegiradapean, behin betiko irtenbidea baliozkotu eta egokitu egingo du, ehuneko hori eta indarrean dagoen araudia betetzen direla ziurtatzeko.

Bizikleta bidearen ondoko ezponden egonkortasuna aztertuko da eta lubakiko eremuetarako proiektatu zen drainatzea optimizatuko da, lur-areken ordez areka estaliak jarriko dira, eta lurpeko drainatze gehigarria egingo da beharrezkoa den eremuetan.

Aurreko lanak (2007ko eraikuntza-proiektua eta 2025eko egungo egoeraren azterketa) eta dokumentu honetan azaldutakoa hartuta erreferentziatzat, enpresa idazleak Leintz-Gatzaga eta Araba arteko I04-018F bizikleta-bidearen eraikuntza-proiektua idazteko behin betiko konponbidea baliozkotu eta egokituko du. Azken ezaugarri zehatzak elkarrekin finkatuko dituzte idazleak eta kontratuaren zuzendaritzak, kontratua garatu ahala.

Elementuen kontserbazio egoera behar bezala ebaluatu ahal izateko eta proiektua behar bezala idazten dela bermatzeko, berreskuratuko den trazaduraren eta instalazioen luzera osora sartu ahal izango da. Hori dela eta, sastrakak kendu beharko dira landaredi ugari duten eta/edo iristeko zailak diren eremuetan, eta, behar izanez gero, garbitu beharko dira (ubideetarako sarbideak, kutxatilak...).

Inguru horretan lehendik dauden edo aurreikusten diren zerbitzu eta instalazio guztiak, obrek ukitzen dituztenak, zehatz-mehatz aztertuko dira, eta beharrezko birjartzeak proiektatuko dira, betiere dagokien erakunde edo enpresa titularrekin ados jarrita.

Proiektuak beharrezko diren okupazioen planoak jaso beharko ditu, ukitutako finkak identifikatuta, eta bereziki begiratuko da zer eragin duen trazadurak zeharkatzen dituen abeltzaintza-jarduerako landa-finketan, halakorik bada.

ACTAb2129846-808f-4188-83dc-2f39cd01421e

Proiektuak, gutxienez, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, 233. artikuluan aipatzen dituen dokumentuak eduki behar ditu.

5. BALDINTZA TEKNIKOAK

Proiektuak bete egin beharko ditu errepideak eraikitzeko obra proiektuei aplikagarriak zaizkien xedapen guztiak, indarrean daudenak, baita aplikagarriak diren jarraibideak eta gomendioak ere.

6. AHOLKULARIAREN ESKURA JARRIKO DEN DOKUMENTAZIOA

Departamentuak duen eta idazteko interesgarria izan daitekeen inguruari buruzko informazio guztia adjudikaziodunen aholkulariaren esku jarriko da

- Eskoriatza-Arabako muga bidegorriaren zatia eraikitzeko proiektua, 2007an egina (formatu editagarrian).
- «Eskoriatza-Arabako muga tartean bizikleta bidearen proiektuak hartzen duen plataformaren egungo egoerari buruzko azterlana» (5-BI-85/2025-AT-ES), 2025ean egina.
- 157/2023 Dekretua, urriaren 24koa, zeinaren bidez Vasco-Navarro Trenbidearen Euskal Autonomia Erkidegoko tartea, babes bereziko kultura-ondasun deklaratzen baita, monumentu multzoaren kategoriarekin.
- I04-018F bizikleta-bidearen gutxi gorabeherako trazadura (100 m-ko kp-arekin), KMZ formatuan

7. ENPRESA AHOLKULARIAK EGIN BEHARREKO LANAK

Aurreko lanak – 2007ko eraikuntza-proiektua eta 2025eko egungo egoeraren azterlana – eta dokumentu honetan azaldutakoa erreferentziatzat hartuta, proiektua idazten duen enpresak behin betiko irtenbidea baliozkotu eta egokituko du, Leintz-Gatzagaren eta Arabako lurralde-muga historikoaren arteko I04-018F bizikleta bidearen eraikuntza-proiektua idazteko (61,860 KParen eta 65,122 KParen artean).

Kontratuaren erredaktoreak eta zuzendaritzak batera finkatuko dituzte azken ezaugarri zehatzak, kontratua garatzen den bitartean.

Enpresa aholkularia arduratuko da bai berak idatzitako dokumentu guztiak bai Administrazioak aholkulariaren esku-hartzerik gabe prestatuko dituenak mekanografiatzeaz, delineatzeaz, erreproduzitzeaz, ordenatzeaz, koadernatzeaz eta holako lan guztiak egiteaz. Aipatutako amaierako lanez gain, enpresa aholkulariak Kontratuaren Zuzendaritzaren agindupean idatziko ditu agiri honetan adierazten diren dokumentu guztiak. Horrez gain, bere kontura eta bere langile eta baliabideekin egingo ditu honako lan hauek:

7.1. Lan topografikoak

Lana egiteko, 2005eko otsailean egindako jasotze takimetriko digitala dago, Eskoriatza-Arabako muga tarteko bizikleta-bidea eraikitzeko proiektua idazteko erabili zena (2007an egina). Hogei urte igaro direnez, idazten duen enpresak topografia klasikoz edo GPS topografiaz egindako jasotze topografiko batekin osatu beharko du eskuragarri dagoen informazioa, benetako egoerara eguneratu arte. Proiektua idazten duen enpresa arduratu arren lan horietaz, Bide Azpiegituren Birgaitze Zerbitzuaren eta Bulego Teknikoaren topografo taldearekin elkarlanean egingo dira; beraz, hori kontuan hartu beharko da eskaintza aurkeztean.

ACTAb2129846-808f-4188-83dc-2f39cd01421e

Ondoren, topografiako eranskin espezifikoa prestatuko da, hala 2007ko eraikuntza-proiektutik jasotako informazioa nola enpresak berak Zerbitzuaren topografia taldearekin elkarlanean atera duena kontuan hartuz. 2007. urteko eraikuntza-proiektutik hartutako informazioarekin eta enpresak berak egindakoarekin, topografiari buruzko eranskin espezifiko bat egingo da, honako hauek jasoko dituena: laguntza-grafikoak, landa eta kabinete libretak, kalkuluak, zuinketa-sarearen erpinen zerrenda eta erreseina, eta zuinketa-sarearekin bat ez datozen nibelazio geometrikoko sareko puntuak. Horrela, lan horrek informazio topografiko osoa jasoko du, eraikuntza-proiektua ondoren idazteko aurreko beste batzuetara jo beharrik gabe.

Lan hauek egin beharko dira:

- Zuinketako oinarrien sare bat ezartzea, jasotzea behatzeko eta, ondoren, eraikuntza fasean obraren zuinketa egiteko balio dutenak.
- Jasotze lana egitea 1:1000 eskalan, eguneratua.
- Baldintza agiri honetan aipatzen diren lan osagarriak egitea.

Hori guztia ETRS89 sistemaren gainean.

7.2. Trazadura eta zuinketa

Aurreko lanak – 2007ko eraikuntza-proiektua eta 2025eko egungo egoeraren azterketa – erreferentziatzat hartuta, etorkizuneko bizikleta-bidearen trazadura ia zehaztuta geratu da. Adjudikaziodunak, Kontratuaren Zuzendaritzak gainbegiratuta, dagoen dokumentazioa berrikusiko du eta definizio hori baliozkotuko du, trazaduraren egungo egoerara eta indarrean dagoen araudira egokituta. Berrikuspenean, arreta berezia jarriko da Gure Ametsa jatetxearen aldameneko tartea zehatz mugatzeko, zantzu batzuek aditzera ematen dutelako aldatu eta lursailaren kanpoalderantz eraman dela. Hala bada, lurren jabeak zein diren ikertu beharko da, eta jatorrizko ibilbideari jarraituz definitu beharko da trazadura.

Ohiko eran jasoko du ardatzaren koordenatuen (x, y, z) araberako lerrokaduren eta sestren egoera, hamar metroko distantzia progresiboetan, eta lerrokaduren eta kurba bertikaletako erpinen arteko ukitze-puntuak tartekatuko ditu. Zabalgunearen mugen eta desjabetze mugen koordenatuak zehaztuko dira.

7.3. Geologia eta Geoteknia

Aurreko lanak hartuta erreferentziatzat (2007ko eraikuntza-proiektua eta 2025eko egungo egoeraren azterlana), trazadurako geologiaren eta geotekniaren definizioa handia da. Adjudikaziodunak, kontratuaren zuzendaritzaren gainbegiradapean, dagoen dokumentazioa berrikusiko du, azterlan horiek baliozkotuko ditu, eta trazaduraren egungo egoerara eta indarrean dagoen araudira egokituko ditu.

Zehazki, aurretik egindako bi txosten geotekniko daude. Lehenengoa 2005eko irailean idatzi zen, eta tunelen egoera eta tunelak sendotzeko neurri zehatzak aztertzen ditu. Bigarrena, berriz, 2007ko otsailean idatzi zen. Egituren (pontoi eta zubien) estribuetako euskarrietan eta lerraduretan behar diren egonkortze-neurriak aztertu, eta laginzulo kanpaina bat egiten du beharrezkoa den eremuetan.

Tarte honek gainerakoekin duen desberdintasuna da ez dagoela tunelik, ezta munta handiko egiturarik ere; egoera onean dauden euste horma batzuk ditu bakarrik. Horregatik, eskuragarri dagoen informazioa berrikustean eta ibilbidearen geologia nahiz geoteknia aztertzean, batez ere, dauden euste hormen eta bizikleta bidearen ondoko ezponden egonkortasunari erreparatuko zaio.

ACTAb2129846-808f-4188-83dc-2f39cd01421e

Proiektua idatziko duen enpresak baloratuko du dagoen informazioa kanpaina geotekniko gehigarri batekin osatu behar den edo informazio hori elementu berezien ikuskapen espezifikoekin osatu behar den, benetako egoerara eguneratu arte. Horregatik, beharrezkoa bada, landa-prospekzioen kanpaina espezifiko bat diseinatu eta egingo da lan horretarako.

Nolanahi ere, enpresa idazleak berariazko eranskin batean jaso beharko du aurretiazko azterketetatik lortutako informazio garrantzitsua, eta, hala badagokio, prospekzio-kanpaina espezifikoaren emaitzen ondorioz behar diren doikuntza eta berezitasun guztiekin da.

Azterketa geologiko-geotekniko espezifikoak fase hauek izango ditu:

1. Informazio geologiko-geoteknikoa biltzea eta aztertzea aurretiazko azterlanetatik –Eskoriatza-Arabako muga tarteko bizikleta-bidea eraikitzeko proiektua (2007an egina)–, behin betiko trazadurara egokitzea eta egungo egoerara eguneratzea.
2. Beharrezkoa denean:
    a. Egin beharreko kanpaina geoteknikoa ezartzea
    b. Landa-prospekzioak egitea
    c. Laborategiko saiakuntzak
3. Amaierako txostena. Ondorioak eta gomendioak.

Behar izanez gero, aholkularitza enpresak azterketa geologiko mekanikoen proiektu bat prestatuko du. Proiektu horrek, dauden datuetatik abiatuta, zehatz-mehatz definituko ditu aztergai diren lursailen ezaugarri geoteknikoak behar bezala definitzeko beharrezkoak diren zundaketak, laginzuloak, prospekzioak, lagin-hartzeak, saiakuntzak eta abar. Proiektu hori kontratuaren zuzendaritzari aurkeztuko zaio, onar dezan. Proiektu horretan, azterketa guztien eta aurreikusitako sarbideen egoera zehatza jasotzen duten plano xehatuak erantsiko dira, baita lurzati plano bat ere, horiek erabilgarri egotea izapidetu beharko balitz aldi baterako zer okupazio beharko liratekeen jasoko duena.

Azterketa-proiektuan hala definitutako prospekzioa azterlan geologikoaz arduratuko den teknikariaren zuzendaritzapean egingo da, eta azterlan horretako lantaldea osatzen duten adituak beti egongo dira aurrean, txostenaren fidagarritasuna bermatzeko.

Topografikoki jasoko da azterketa-lan guztiak zer puntu zehatzetan egin diren, baita zundaketa-ahoen kotak zein diren ere bai.

Eskuragarri dagoen informazio geologikoari jarraituz, eta lekuan bertan hartutako oharrak eta egindako ikerketa geotekniko xehatua aintzat hartuta, enpresa aholkulariak behin betiko txostena idatziko du, eduki hau jasorik:

<u>Zabalgunea.</u>

Aurrekarietan oinarrituta –2007ko eraikuntza-proiektua eta 2025eko egungo egoeraren azterketa–, trazaduraren zabalgunea nahiko zehaztuta dago. Adjudikaziodunak, kontratuaren zuzendaritzaren

ACTAb2129846-808f-4188-83dc-2f39cd01421e

gainbegiradapean, definizio hori baliozkotu, eta trazaduraren egungo egoerara eta indarrean dagoen araudira egokituko du.

Lur-erauzketak eta lubetak.

Trazadura, nagusiki, garai bateko Vasco-Navarro trenbidetik doa, eta, zati batzuetan, auzo bideetatik. Horrela, ez dira lur-mugimendu, lur-erauzketa edo lubeta handirik egin beharko.

Era berean, 2007ko proiektua eta 2025eko azterlana tarteko, jada hauteman dira lur-erauzketako ezpondetan dauden ezegonkortasun edo lubetetan dauden lerradura gehienak, eta zehaztuta dago zer neurri zuzentzaile behar diren ere. Hala ere, adjudikaziodunak aldez aurreko dokumentazioa baliozkotuko du eta trazaduraren egungo egoerara egokituko du, lubetetan lerradura edo hondoratze berririk dagoen edo 2007an identifikatu zirenak areagotu diren identifikaturik. Zein egonkorrak diren aztertuko da, eta haietako bakoitzean hartu beharreko neurri zuzentzaileak zehaztuko dira.

Lur-erauzketa gehiago egin behar izanez gero, horietako bakoitzaren egonkortasuna aztertuko da, eta berariaz adieraziko da gutxienez zein ezpondatan egin beharko diren lanak, induskatuko diren materialen ezaugarri geoteknikoen arabera, indarrean dagoen araudia betez.

Lubeta gehiago egin behar izanez gero, zer ezaugarri izan behar dituzten eta nola induskatuko diren zehaztuko da, trazadurak zeharkatutako lurren ezaugarri geoteknikoak eta lur-erauzketetatik lortuko den materiala kontuan hartuta, eta orobat aztertuko dira lubeta eta harbeten ezaugarriak, horiek egiteko modua eta haitzaren zatiketaren tamaina.

Betelanak aztertu egingo dira, baldin eta lubetaren zimendua edo lursailaren zeharkako malda dela-eta neurri bereziak hartu behar badira; eta neurri horiek zergatik hartu behar diren arrazoituko da.

7.4. Drainatze eta Hidrologia

Aurreko lanak erreferentziatzat hartuta (2007ko eraikuntza-proiektua eta 2025eko egungo egoeraren azterlana), etorkizuneko bizikleta-bidearen drainatzea nahiko zehaztuta dago. Adjudikaziodunak, kontratuaren zuzendaritzaren gainbegiradapean, dagoen dokumentazioa berrikusi eta definizio hori baliozkotu, trazaduraren egungo egoerara eta indarrean dagoen araudira egokituz.

Era berean, hasiera batean proiektatutako lubakiko eremuen drainatzea optimizatuko da, lur-areken ordez areka estaliak jarriz eta lurpeko drainatze gehigarria eginez hala eskatzen duten eremuetan.

Oro har, proiektatutako guztiaren drainatzea aztertuko da, bai gainazalekoa (luzetarakoa eta zeharkakoa), bai eta lurpekoa ere, Sustapen Ministerioaren Errepideei buruzko Jarraibidearen araudiari eta Gipuzkoako Foru Aldundiak drainatze-obren tamainari eta motari dagokienez dituen ohiko arauei jarraituz.

ACTAb2129846-808f-4188-83dc-2f39cd01421e

Ahal dela, sare bat edo sare multzo bat diseinatuko da, bidearen plataformako eta bidera isurtzen duten ertzen azaleko isurketa-ura hustu ahal izateko, isurbide askeko areka-sistema baten bidez.

Sekzio tipoa, baita luzerako drainatze sistema osatzen duten elementuen gainerako xehetasunak ere, zehaztasun osoz definituko dira proiektuko planoetan.

Halaber, luzerako drainatzea nahikoa ez den kasuetan, eta zeharkako drainatzea ez badago kota egokian kokatuta, drainatze sakona diseinatu beharko da. Horretarako, 5.1-I.C. Drainatzea jarraibidean ezarritako gomendioei jarraituko zaie.

Eskuragarri dagoen informazioa baliozkotu eta luzetarako drainatze-sare osoa trazaduraren egungo egoerara egokitu ondoren, luzetarako drainatze-obren laburpen-taula bat egingo da. Bertan, obra bakoitzaren kokapena (OD), neurri geometrikoak (zeharkako sekzioa, luzera, etab.) eta sare osoaren barruan betetzen duen funtzioa (luzetarako drainatzea, areka estalia, lurpeko draina, luzetarako drainatzerako zeharkako obra, etab.) adieraziko dira.

Proiektatutako drainatze-sareko elementu bakoitzari buruzko datu zehatzak bildu beharko dira proiektuaren planoetan: besteak beste, kokapena, orientazioa, dimentsioak eta malda modu zehatzean mugatzeko adinakoak.

Horretarako, datu hauek jaso beharko ditu beti:

- Harea-putzuen eta fabrika-obren ahoen kokapen-koordenatuak.
- Fabrika-obren ahoetako zoruaren kotak.
- Drainatze areken beheko erpinaren sestraren definizio geometrikoa (puntu berezien maldak, kotak eta koordenatuak, eta abar).
- Baita lur azpiko drainatze hodien zoruarena ere.
- Fabrika-obrak egiteko erabiliko diren materialen dimentsio geometrikoen, zoru-lodieraren, estalduren eta bete beharreko kalitate-zehaztapenen definizio zehatza.

7.5. Egiturak, hormak eta fabrika obrak

Aldez aurreko lanen bidez – 2007ko eraikuntza-proiektua eta 2025eko egungo egoeraren azterketa – eta dokumentu honetan azaldutakoaren bidez definituta geratzen dira lehendik dauden edo eraiki berriak diren fabriken egiturak, hormak eta obrak, bai eta horien egonkortasuna bermatzeko egin beharreko jarduketak ere.

Tarte honek gainerakoekin duen desberdintasuna da ez dagoela tunelik, ezta munta handiko egiturarik ere; egoera onean dauden euste horma batzuk ditu bakarrik.

7.6. Zoruak

ACTAb2129846-808f-4188-83dc-2f39cd01421e

Aurreko lanak erreferentziatzat hartuta (2007ko eraikuntza-proiektua eta 2025eko egungo egoeraren azterlana), etorkizuneko bizikleta-bidearen zorua nahiko zehaztuta geratu da.

Hala ere, definizio hori trazaduraren egungo egoerara eta indarrean dagoen araudira egokitu beharko da. Horregatik, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren 10/2021 Legea betez, bizikleta-bideko zorua diseinatzean, erabilitako materialen % 40, gutxienez, birziklatuak, azpiproduktuak edo bigarren mailako lehengaiak direla bermatuko da. Adjudikaziodunak, kontratuaren zuzendaritzaren gainbegiradapean, behin betiko irtenbidea baliozkotu eta egokituko du, ehuneko hori betetzen dela eta trazaduraren benetako egoerara egokitzen dela ziurtatzeko.

Oro har, proposatutako aukera tekniko-ekonomikoak ateratzeko iturri hauetara joko da: EAEko bizikleta-bideetarako bide-zoruak diseinatzeko gomendioak, EAEko errepide-sareko bide-zoruak dimentsionatzeko araua, eta, araudi horretatik kanpo, aplika daitezkeen materialei dagokienez esperientzia, ikerketa eta eskuragarritasuna kontuan hartzeko aukera ematen dutenak. Horretarako, bide mota eta erabili beharreko materialen iturriak hartu beharko dira kontuan, baita horiek ustiatzeko eta lortzeko aukera ere.

Eremu berezietan (tunelak, zubiak edo bideak) nahasketa bituminosoa edo hormigoia erabiliko bada ere, paisaia-integrazioa bermatuko duten materialak lehenetsiko dira, akabera landatar eta naturala bilatuz.

7.7. Lur-mugimenduak

Trazadura, nagusiki, garai bateko Vasco-Navarro trenbidetik doa, eta, zati batzuetan, auzo bideetatik. Horrela, ez da lur-mugimendu, lur-erauzketa edo lubeta handirik egin beharko.

Hala ere, oro har, lur-mugimenduak orekatuta egotea bilatzen da, soberako materiala atera beharra minimizatzearren.

7.8. Obrek irauten duten bitartean trafikoa antolatzeko proposatutako irtenbideak

Ez da aurreikusten trafikoari kalte handirik eragingo zaionik, trazadura landa-finketatik igarotzen baita gehienbat. Hala ere, obren exekuzioak zerbitzuan egon behar duen bideren bati eragiten badio, osorik edo zati batean, behar diren neurriak hartuko dira obren eta ibilgailuen pasabidearen arteko interferentzia ahalik eta txikiena izan dadin eraikuntza-proiektuaren fase guztietan.

Obrak egiteko behar diren behin-behineko desbideratzeen eta estuguneen definizioa (kokapena, trazadura, seinaleztapena, balizak) proiektuaren kontratu-dokumentuetan agertu beharko da (planoak, lurraldeko zati-plana eta aurrekontuak).

7.9. Seinaleak, balizak eta babesak

<u>Seinale horizontalak</u>

Errepideren bateko seinale horizontalei eragiten badiete, indarrean dagoen 8.2.-I.C. Instrukzioan ("Bide-marrak") zehaztutakora egokituko dira.

ACTAb2129846-808f-4188-83dc-2f39cd01421e

Bizikleta-bidearen zoru gehienak zoru malgua izango du, eta akabera material pikortsukoa; beraz, ez du seinale horizontalik izango. Hala ere, hala eskatzen duen lekuetan, bide-marrak "Gipuzkoan hiriarteko bizikleta bideak seinaleztatzeko gomendioetara" egokituko dira.

Proiektuko planoetan seinaleztapenari buruzko oinplano orokorrak barneratuko dira, eta baita erabilitako errepide-marka bakoitzaren dimentsioak ere: luzeetarakoak, zeharkakoak, geziak, babesguneak, etab.

Erabili beharreko material guztien ezaugarriak eta errepide marka ezberdinak egiteko era Baldintza Tekniko Berezien Agirian zehaztuko dira, dagokien atalean.

Seinale bertikalak.

Errepideko zirkulazioko seinale bertikalak diseinatzeko eta kokatzeko, egungo 8.1.-I.C. Araua eta Zirkulazio Kodea hartuko dira kontuan, eta bizikleta-oinezkoentzako bideetan erabiltzen direnak "Gipuzkoan hiriarteko bizikleta-bideak seinaleztatzeko gomendioak" delakora egokituko dira.

Seinaleen euskarazko zein gaztelaniazko testuak diseinatzeko orduan, Eusko Jaurlaritzaren berariazko Araudia eta toponimia izen ofizialak erabiliko dira.

Oinplanoetan dagozkion seinaleak marraztuko dira, bakoitza zein puntutan kokatu behar den zehaztuz. Halaber, kode seinaleen kasuan, bakoitzaren zenbakia ere adieraziko da.

Erabili beharreko materialen ezaugarriak Ezaugarri Berezien Baldintza Agirian zehaztuko dira, dagokien atalean.

Seinaleztapen-euskarri berezien diseinua eta kalkuluak jasoko dira, behar izanez gero.

Xehetasunen planoetan, informazio seinaleen tamaina eta testua adieraziko dira.

Balizak

Seinale horizontalez eta bertikalez gain, dagozkion baliza elementuak ere diseinatuko dira; eta bereziki:

- Kilometro-mugarriak jarriko dira, Bide Azpiegituretako eta Lurralde Estrategiako Departamentu. esleitzen dizkien zenbakiekin.
- Segurtasun hesiaren gainean faro islatzaileak ezarriko dira
- Bide-ertzeko mugarriak ezarriko dira, Sustapen Ministerioko Errepideen Zuzendaritza Nagusiak gai horren inguruan emandako gomendioei jarraituz.

Segurtasun hesia.

Segurtasun hesia zein tartetan jarri behar den zehazteko, Sustapen Ministerioak eta OCk «Ibilgailuen euste-sistemei» buruz ezarritako gomendioei jarraituko zaie, bai eta euste-sistemen CE markari buruzko Europako araudiari ere.

7.10. Bide segurtasuna

Eranskin batean bide-segurtasunari buruzko azterlan bat sartuko da. Azterlan horretan, hartutako konponbidea bide-segurtasunaren ikuspegitik egokia den aztertu eta justifikatuko da, eta bizikleta bidearen beraren erabiltzaileen eta balizko errepideen arriskuak murrizteko hartutako neurriak deskribatuko dira.

Oro har, eranskin horretan proiektatu beharreko obraren alderdi hauek aztertuko dira:

ACTAb2129846-808f-4188-83dc-2f39cd01421e

- Trazadura: abiadura espezifikoa, gehieneko abiadurak, homogeneotasuna, zeharkako sekzioa, peralteak, inklinazioak, etab.
- Gelditu eta aurreratzeko ikuspen distantziak, trazadura galerak.
- Trantsizioak, errei kopurua handitzen eta gutxitzen denean.
- Sarbideen antolaketa, ezaugarriak, horien arteko distantzia, ikuspenak.
- Seinale bertikal eta horizontalak.
- Eguneko eta gaueko balizak.
- Euste sistema.
- Bide segurtasunerako bestelako neurri edo gailuak
- Zoladura eta drainadura: mota eta klima baldintzetara egokitzea.

7.11. Argiztapena

Hasiera batean, ez da aurreikusten bizikleta bidearen tartea argiztatzea.

7.12. Lursailak okupatzea

Proiektuak beharrezko diren okupazioen planoak jaso beharko ditu, ukitutako finkak identifikatuta, eta bereziki begiratuko da zer eragin duen trazadurak zeharkatzen dituen abeltzaintza-jarduerako landa-finketan, halakorik bada.

Lurzatien planoa

2007. urteko “Eskoriatza-Arabako muga tarteko bizikleta-bidea eraikitzeko proiektua” izeneko proiektuan aipatzen denez, trazadurak ukitzen dituen udalen jabetzakoak dira lursail guztiak: hau da, Eskoriatzako Udala (Gipuzkoa), Leintz-Gatzagako Udala (Gipuzkoa) eta Aramaioko Udala (Araba). Hala ere, informazio hori berretsi, eta egiaztatu beharko da zein diren behin betiko trazaduraren eraginpeko lursail guztien titularrak, proiektuaren xede den tartean.

Zehaztasun osoz mugatuko dira proiektuan jasotako obra guztiak egitean ukitutako ondasun eta eskubideak, baita bizikleta-bideak behar bezala funtzionatzeko, kontserbatzeko eta ustiatzeko beharrezkoak diren erantsitako eremuak ere. Honako hauek aurreikusi beharko dira: eraginpeko zerbitzuak kokatzeko behar diren desjabetzeak; behin-behineko desbideratzeak egiteko behar diren aldi baterako okupazioak; obrarako eta instalazioetarako sarbideak; eta instalazio elektrikoen hartune- eta elikadura-lineak jartzearen ondoriozko zortasun eta okupazioak (aldi baterakoak edo behin betikoak).

Bizikleta-bidearen jabetza-mugak jasotzen dituen lurzati-planoa egingo da, horretarako induskatutako ezponden titulartasun publikoa barne. Dagozkien udaletan ikertuko da eragindako bideen titulartasun publiko edo pribatua. Bide eta ibilgu publikoen jabetza-mugak takimetrikoan duten egoera zehatzera egokituko dira. Bizikleta-bidearen egungo egoeraren topografiko eguneratuaren eremu guztietan, obrek

ACTAb2129846-808f-4188-83dc-2f39cd01421e

okupatutako eremuan eta desjabetze lerrotik 2,5 metrora baino gutxiagora dauden lurzatiak osatuko dira, mugak, hormak eta laboreak bereizita.

Lurzati-plano horietan, desjabetzearen mugak, aldi baterako okupazioa edo zortasunak, sortutako lurzati edo azpilurzatien zenbakiak eta bizikleta-bidearen ardatza (KPak barne) marraztuko dira, egin beharreko obrak definitzeko elementu bakar gisa. Lurzatien titulartasunak definitzeko, ezingo da katastroko planoa bakarrik erabili; planoa nahitaez eguneratu beharko da, tokian bertan hartutako jabe eta errentarien datuekin.

Halaber, lurzatien plano horretan udalerrien arteko mugak ere argi azaldu beharko dira, udalerri bakoitzaren mugen errotulazioak zehaztu beharko dira, eta bakoitzaren barruan, trazadurak ukitutako lurzatiak zenbakituko dira ordena korrelatiboan; horrez gain, lurzati bakoitzaren eta desjabetze mugatik 2,50 metrora arte kokatutako lursailen erreferentzia osoa edo katastroko lurzati-zenbakia azaldu beharko da, horrekin batera poligonoaren zenbakia adieraziz.

Desjabetze ertza inguru poligonalaren bitartez zehaztuko da, eta proiektuan erabilitako sistemak zehaztutako koordenatuak horren erpinei esleituko zaizkie. Proiektuaren eranskinean poligonal horren koordenatuen zerrenda jasoko da.

Kontuan hartuko da bizikleta-bide horri dagokion jabari publikoko zerrendaren desjabetzea. Zerrenda hori metro batekoa izango da, bidearen bi aldeetako kanpoko zabalguneko ertzetatik hasita.

Lehenengo orrian legenda orokorra agertuko da, eta hurrengoetan, legenda orokorra edota legenda osagarri bat ezarriko da, premien arabera.

<u>Ukitutako ondasun eta eskubideen zerrenda.</u>

Laburpen-taulak egingo dira A-3 tamainan, eta taula horietan, lekuan bertan egindako ikerketaren ondorioz eguneratutako datuak (inoiz ez Katastroan bakarrik eguneratutakoak) zerrenda batean ezarriko dira, udalerrien arabera banakatuta. Taula horietan, honakoak adieraziko dira:

- Proiektuko lursail zenbakia: 1. zenbakitik hasita goranzko ordena korrelatiboan zenbakituko dira. Zenbaki hori bera esleituko zaie lursailaren jabeari eta izan litezkeen maizterrei, bakoitzaren izaeran arabera bereizita.

- Izaera: Adieraziko da jabea den, errentaria den, prekarista den, eta abar, edo proiektuak ukitutako ondasunarekin duen edozein eskubide edo izaera.

- Izen-abizenak: Egungo jabearen, jaraunsleen, bestelako jabeen edo errentarien izen-abizenak adieraziko dira.

- Helbidea: Kaltetutako pertsonaren edo pertsonen egungo ohiko bizilekua adieraziko da. Hainbat oinordeko edo hainbat jabe badira, horietako baten helbidea bakarrik aipatuko da, harremanetarako zehaztutakoa.

- Ukitutako azalerak: Azalerak m²-tan adieraziko dira, eta azaldu egingo da desjabetzekoak, zortasunekoak edo behin-behineko okupaziokoak diren.

- Aprobetxamendua: Lursailaren egungo aprobetxamendua adieraziko da: mendi pinudia, belardia, laborantza, baratzea, eta abar.

ACTAb2129846-808f-4188-83dc-2f39cd01421e

- Ukitutako ondasunak: Aipatutako lurzatian dauden eta obrek ukitu dituzten ondasunak zehaztuko dira, zehatz-mehatz adieraziz eraikin, putzu, itxitura, hornitegi eta abarretan eragindako kalteen zenbatekoa.

- Argindar, telefonia eta bestelako zerbitzuetan izango den ondorioa: M^2-tan adieraziko dira, eta azaldu egingo da desjabetzekoak, zortasunekoak edo behin-behineko okupaziokoak diren.

- Katastroko datuak: Ukitutako ondasunaren katastroko izaera adieraziko da, eta zehaztu egingo da landako edo hiriko izaera duen, poligono zenbakia eta partzela zenbakia.

Gainera, parajearen izena eta interesgarria izan daitekeen beste edozein datu adieraziko da.

Proiektuak ukitutako beste edozein ondasun edo eskubide adierazi eta deskribatu egin beharko da.

Argitalpenek eta ukitutako pertsonei egin beharreko komunikazioek eragindako gastu guztiak kontsultorearen kontura izango dira.

7.13. Proiektuak ukitzen dituen zerbitzuak

Aldez aurreko lanak – 2007ko eraikuntza-proiektua eta 2025eko egungo egoeraren azterketa – eta agiri honetan aipatutakoa oinarri hartuta, adjudikaziodunak emandako dokumentazioa baliozkotu eta egokituko du behin betiko trazadurara, bidearen egungo egoerara eta indarrean dagoen araudira, Kontratuaren Zuzendaritzak gainbegiratuta.

Inguru horretan lehendik dauden edo aurreikusten diren zerbitzu eta instalazio guztiak, obrek ukitzen dituztenak, zehatz-mehatz berrikusiko dira, eta beharrezko birjartzeak proiektatuko dira, betiere dagokien erakunde edo enpresa titularrekin ados jarrita.

Ukituta gerta daitezkeen zerbitzu guzti-guztien kokapena argi eta garbi adieraziko da dagozkien planoetan.

Eragindako zerbitzu horiek lehengoratzea proiektatu eta proiektuaren gauzatze materialaren aurrekontuan sartuko da.

<u>Berrezarpenen diseinua.</u>

Behin zerbitzuak kokatu eta identifikatutakoan, tokiko jasotze topografiko bat egingo da etete puntuan, birjartzeak hala behar duenean, eta xehetasunez adieraziko dira ukitutako trazatuaren elementuen (euste zutoinak, aireko hariteria, eta abar) koordenatuak eta kotak.

Arestian aipatutako informazio hori guztia oinplanoan islatuko da eskala egokian, eta dagokion zerbitzuaren enpresa-jabeari edo entitate esleipendunari bidaliko zaizkio, eta berrezartze lanek bete beharreko baldintza teknikoez gain, dauden baldintzatzaileei buruzko informazioa ere bilduko da.

Ukitutako zerbitzu bakoitzaren berrezarpen proiektua kontsultorearen kontura egingo da. Proiektu hori kontsultoreak berak egin ahal izango du, edo bestela, teknikari espezializatuek lagunduta, edota ukitutako erakundeak berak emandako aholkularitzaren bidez. Eragindako erakundeak homologatutako enpresen esku-hartzea beharrezkoa izanez gero, aholkularia harekin harremanetan jarriko da eta birjarpen-proiektua egiten dela gainbegiratuko du. Kontratu honen esleipendun den kontsultorearen kontura joango dira berrezarpen proiektuaren kostua eta ordainketa.

Erabakitako irtenbideak, edonola ere, kasuan kasuko zerbitzuaren entitate edo enpresa titularraren onespena izan beharko du, baita proiektuaren ingeniari-zuzendariaren oniritzia ere.

Zerbitzuen berrezarpenerako proiektuetako planoak Proiektuko plano izatera pasako dira.

ACTAb2129846-808f-4188-83dc-2f39cd01421e

Proiektuaren Baldintza Tekniko Bereziaren Agirian agertuko dira proiektatutako berrezarpenen exekuzio materiala egiteko beharrezkoak diren obra unitate guztien definizio zehatza, erabili beharreko materialek bete beharreko kalitate xedapenak, baita neurketak eta ordainketak egiteko modua ere, kasuak kasu aplikagarriak diren prezioei erreferentzia eginez; hau da, 1 zk. Prezioen Taulan zehaztutakoak, alegia.

1 zk. Prezioen Taulan zehaztu beharko dira zerbitzuak berrezartzeko proiektuan jasotako obra unitate bakoitzaren exekuzio materialerako prezioak; eta 2 zk. Prezioen Taulan, berriz, prezio horien arauzko banakaketa egingo da.

Ukitutako zerbitzuen berrezarpen aurrekontuak aurrekontu partzial gisa atxikiko dira Zerbitzuen Berrezarpenaren Kapitulu Orokorrean. Aurrekontu horien zenbateko osoa Proiektuaren Exekuzio Materialerako Aurrekontuaren gainerako kapituluetan jasoko da, baldin eta zerbitzuaren berrezarpena entitate titularrak egiten ez badu behintzat.

7.14. Obra plana

2007ko obra-planak erreferentzia gisa balio badu ere, proiektu berriaren ezaugarrietara eta definizioetara egokitu beharko da.

Obra-plan hori indarrean dagoen Sektore Publikoko Kontratuen Legean eta Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrean ezarritakoa betez egingo da, eta programazio horrek izaera adierazgarri soila izango duela adieraziko da.

Obra plan hau egingo da Sektore Publikoko Kontratu Legearen Testu Bateratuan eta Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrean xedatutakoa betez, baina argi utzi beharko da programazio hori orientagarria izango dela soilik.

Obrak irudikatzen dituen barra diagrama bat erantsiko da, obrak amaitzeko aurreikusitako epea adierazita.

Diagrama hori eratzeko orduan, obra unitate garrantzitsuenen jarduerak hartuko dira kontuan, eta aurreikusitako programazioaren arabera, hilabete bakoitzean egin beharreko lanei buruz zenbatetsitako kopuruak zehaztuko dira.

7.15. Ingurumen-Inpaktuaren Azterlana

Proiektuak ingurumen-inpaktuaren ebaluazio sinplifikatuaren prozedura bete beharko du, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legeak barnean hartzen baitu II.E eranskineko kasuetan (ingurumen-ebaluazio sinplifikatua behar duten proiektuak), E9 taldeko kasuetan (beste proiektu batzuk), 9.n): “Bizikletazale eta oinezkoentzako bide berriak, 2 km-ko edo gehiagoko luzera jarraitu edo etenean, urbanizatu gabeko eremuetatik igarotzen direnak”. Ondorioz, proiektuarekin batera Ingurumen Azterketa bat egingo da, aipatutako 10/2021 Legean ezarritako edukiekin. Azterlanak obraren eremuari egin beharko dio erreferentzia, sortutako inpaktuen ondorioz gomendagarria den punturaino.

Gainera, Aizkorri-Aratz Parke Naturaletik igarotzen denez, Natura 2000 Sarearen barruan dago tarte hori. Horregatik, “Natura 2000 Sareari eragindako afekzioen azterketa” dokumentu espezifikoa prestatu beharko da.

Obren eraginpeko eremu guztiak landareztatzeko tratamendua diseinatuko da, landare-lurra zabalduz, hidroereinez eta landatuz.

ACTAb2129846-808f-4188-83dc-2f39cd01421e

7.16. Segurtasun eta Osasun Azterlana

2007ko jatorrizko proiektuak Segurtasun eta Osasun Azterlana dauka; horregatik, adjudikaziodunak dokumentazio hori baliozkotu eta eguneratuko du, proiektu berrira egokitzen dela eta indarrean dagoen araudia betetzen duela bermatuz.

Obren tamaina kontuan hartuta, zenbatetsitako aurrekontuan eta egin beharreko obra motan oinarrituta, legez nahitaezkoa da proiektuan Laneko Segurtasun eta Osasunari buruzko Azterlan bat sartzea, urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera. Segurtasun eta Osasun Azterlana egiteko, dagoen dokumentazioa hartuko da erreferentziatzat, eta zorrotz beteko dira Sustapen Ministerioaren “Errepideko obretako Segurtasun eta Osasun Azterlanak idazteko gomendioak”.

Azterlan horrek arestian aipatutako Errege Dekretuan adierazitako dokumentuak izango ditu gutxienez, eta horri dagokion aurrekontua Obrako Aurrekontu Orokorrean jasoko da, beste kapitulu berezi batean.

7.17. Hondakinak kudeatzeko azterlana

Eraikuntza- eta eraispen-hondakinak kudeatzeko nahitaezko azterlana idatziko da, indarrean dagoen araudiaren arabera, bereziki Eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen dituen Eusko Jaurlaritzaren ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuari dagokionez.

Euskadiko Ingurumen Administrazioaren 10/2021 Legea betez, proiektu berriak material birziklatuen, azpiproduktuen edo bigarren mailako lehengaien gutxienez % 40ren erabilera bermatuko du.

7.18. Prezioen justifikazioa

Laneskua

Kontuan hartuta langile bakoitzak jasotzen dituen aparteko ordainsariak eta mozkinetako partaidetzari dagozkionak, besteak beste, Gipuzkoako eraikuntza eta obra publikoen sektoreko hitzarmen kolektiboak xedatzen duenarekin bat etorriz, eta indarrean dauden xedapen ofizialetan ezarritako jarraibideen arabera, langileko egunsariak kalkulatuko dira, kategorien arabera, eta formatu eta tamaina irakurgarriko taula batean laburbilduko dira.

Obra-tokiko materialak

Gipuzkoako egungo batez besteko prezioak kalkulatuko dira, hain zuzen ere eraikuntza material hauenak:

- Agregakinak eta eratorriak.
- Aglutinatzaileak.
- Hormigoiz eta zeramikaz prefabrikatuak.
- Produktu siderurgikoak.
- Zura.
- Seinale, baliza eta babes elementuak.
- Material bereziak.

Eraikuntza-ekipoak.

Obretan erabili beharreko eraikuntza-ekipoak osatzen dituzten makina ezberdinen orduko kostua kalkulatzeko "Errepideetako obretarako makineriaren kostua zehazteko Kalkulu Metodoa" erabiliko da, Sustapen Ministerioko Errepideetako Zuzendaritza Nagusiak argitaratutakoa.

ACTAb2129846-808f-4188-83dc-2f39cd01421e

Metodo hori erabiliz, laburpen taula bat osatuko da obren exekuzioan erabili beharreko makineria mota ezberdinen ordukako kostua adieraziz.

Prezioaren justifikazioa

Obra unitate ezberdinen prezioa kalkulatzeko, lehenik eta behin obra unitate bakoitzaren zuzeneko eta zeharkako kostuak zehaztuko dira; eta aurrerago, unitate prezioak, honako formula hau aplikatuz:

Pe = (1 + K/100) Cd. Bertan:

Pe = Dagokion unitatearen gauzatze materialaren prezioa eurotan.

K = "Zeharkako kostuen" portzentaia.

Cd = Unitatearen "zuzeneko kostua", eurotan.

Zuzeneko kostuak.

"Zuzeneko kostu" izango dira:

* Obra unitatearen exekuzioan zuzenean esku hartzen duten langileak, beren osagarri, kargu eta gizarte aseguruekin.

* Unitatearen barne geratzen diren materialak, edo obra unitatea egikaritzeko beharrezkoak direnak, obrako preziotan.

* Makineriaren amortizazio eta artapen gastuak, baita langileengatiko gastuak, erregai zein energia gastuak eta abar, hain zuzen ere makineria piztu edo erabiltzeagatik sortzen direnak.

Zeharkako kostuak.

Honako hauek hartuko dira zeharkako kostutzat: zuzenean unitate jakin batzuei egotz ez dakizkiekeen gastu guztiak, obra osoari baizik, hala nola: obrako bulegoen instalazioak, biltegiak, tailerrak, langileentzako pabiloiak, etab.; eta baita teknikari eta administrariek sortutako gastuak ere, baldin eta obrari soilik atxikita badaude eta unitate zehatz batzuen gauzatzean zuzenean esku hartzen ez badute, hala nola ingeniariak, laguntzaileak, arduradunak, ordaintzaileak, zaintzaileak, eta abar. Halaber, zeharkako kostuak izango dira obra unitateak behar bezala gauzatzeko ezinbestekoak diren norbera babesteko ekipamenduak.

7.19. Administrazioari berri emateko aurrekontua

Aurrekontuen laburpen taula bat egingo da, eta bertan, kontzeptu hauek jasoko dira:

- Exekuzio materialaren aurrekontua:
- Kontratua kontrata bidez gauzatzeko aurrekontua.
- Desjabetzeen, kalte-ordainen eta ukitutako zerbitzuen gutxi gorabeherako aurrekontua.

7.20. Kontratistaren sailkapena

Indarrean dagoen Sektore Publikoko Kontratu Legearen Testu Bateratuan eta indarrean dagoen Kontratuen Legeko Erregelamendu Orokorrean eta Araudi berezian xedatutakoaren arabera, kontratistaren sailkapena eta kontratuaren kategoria proposatuko dira, proiektatutako obren ezaugarriei dagozkienak, alegia.

ACTAb2129846-808f-4188-83dc-2f39cd01421e

8. LANEN ZUZENDARITZA

Obren zuzendaritza Bide Azpiegituretako Departamentuko teknikariek osatuko dute. Zuzendaritza horrek ezarriko ditu enpresa aholkulariaren irizpide eta jarduera ildoak; horrek, lanak garatzeko unean, baldintza agiri honetan eta kontratua osatzen duten bestelako dokumentuetan ezarritakoaren arabera jardun beharko du, eta bere gain izango du erantzukizun tekniko eta legal guztia.

8.1. Taldeak eta laguntzaileak

Proiektuaren egilea Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniaritzaren edo Ingeniaritza Zibilaren ziurtagiri akademikoa duen norbait izango da, Goi Mailako Hezkuntzako Kualifikazioen Espainiako Esparruko master titulua edo titulu baliokideak dituena, dagokion unibertsitate-agintaritzak ziurtatuak, eta 5 urteko esperientzia espezifikoa duena bide-azpiegituretako proiektuak idazten.

Ikerketa osatuko duten lanetako bakoitzaren ardura izango dutenen zerrenda eman behar da eskaintzan, eta, norbaiten lankidetzaz baliatzeko asmoa agertzen bada, haren lankidetzarako konpromisoaren adierazpena aurkeztu behar da. Adjudikaziodun suertatzen den enpresa aholkulariak ezingo ditu eskaintzan proposatutako laguntzaileak alboratu, ez eta horien ordez beste batzuk jarri ere, lanen zuzendaritza teknikoaren onarpenik gabe.

9. PROIEKTUA OSATZEN DUTEN DOKUMENTUAK

Kontratu honen xede den proiektuak klausula honetan informazio gisa zerrendatzen den dokumentazioa jasoko du.

Hala ere, Kontratuaren Zuzendaritzak zerrenda hori aldatu ahal izango du, eta, hasieran, honako dokumentu hauek izango ditu:

9.1. 1. DOKUMENTUA: MEMORIA ETA ERANSKINAK

Memorian, proiektatutako soluzioa globalki justifikatuko da, eta deskribatuko da nolakoa izango den haren ustiaketa eta elementu funtzionalak, obra bereziak, estetika eta ingurumen eta lurralde ingurunea.

Orientabide gisa, atal hauek izango ditu memoriak:

- Proiektuaren objektua
- Aurrekariak
- Aztertutako aukerak
- Proiektuaren deskribapena
- Hondakinen kudeaketa
- Atxikitako zerbitzuak.
- Lursailen okupazioa.
- Ingurumena lehengoratzea
- Azterketa historiko-arkitektonikoa
- Egikaritze epea.
- Kontratistaren sailkapena
- Kontratuei buruzko Legean eta honen Erregelamenduan xedatutakoaren betetze-maila, proiektuak idazteari buruzko orotan.

ACTAb2129846-808f-4188-83dc-2f39cd01421e

- Proiektua osatzen duten dokumentuak
- Ondorioak.

Zirkulazioari buruzko datuak, datu topografikoak, hidrologikoak, hidraulikoak, geologikoak, geoteknikoak eta lurralde zein ingurumen arloko datuak jasoko dira memorian, proiektuaren eraketan erabilitako bestelako kalkulu eta azterlanak bezalaxe.

Orientabide gisa, eranskin hauek izango ditu:

- 1. eranskina.- Aurrekariak.
- 2. eranskina.- Topografia.
- 3. eranskina.- Geologia eta geoteknia.
- 4. eranskina.- Trazadura geometrikoa eta zuinketa.
- 5. eranskina.- Trafikoa eta bide segurtasuna.
- 6. eranskina.- Zoruen azterlana.
- 7. eranskina.- Drainatzea eta hidrologia.
- 8. eranskina.- Obrak exekutatu bitartean trafikorako proposatutako irtenbideak.
- 9. eranskina.- Seinaleak, balizak eta babesak.
- 10. eranskina.- Ingurumen-inpaktuaren azterketa sinplifikatua. Landareztatzeak.
- 11. eranskina.- Azterketa historiko-arkitektonikoa.
- 12. eranskina.- Desjabetzeak eta kalte-ordainak.
- 13. eranskina.- Zerbitzuen berrezarpena.
- 14. eranskina.- Obren plana.
- 15. eranskina.- Kontratistaren sailkapena.
- 16. eranskina.- Prezioen justifikazioa.
- 17. eranskina.- Hondakinen kudeaketari buruzkoa azterlana

9.2. 2. DOKUMENTUA: PLANOAK

Hasiera batean, planoak honela zenbakituko dira:

2.1 Kokapen planoa eta aurkibidea.
2.2. Oinplano orokorra.
2.3. Oinplanoak eta luzetarako profilak.
2.4. Xehetasun-oinplanoak eta puntu bereziak.
2.5 Zeharkako berariazko sekzioak.
2.6 Zeharkako profilak.
2.7. Drainatzea
2.8. Seinaleak, balizak eta babesak.
2.9 Zerbitzuen berrezarpena.
2.10. Trafikorako proposatu diren irtenbideak, obrek dirauten bitartean.
2.11. Ingurumen-inpaktua zuzentzeko neurriak
2.12. Desjabetzeak.

9.3. 3. DOKUMENTUA: PRESKRIPZIO TEKNIKO PARTIKULARREN AGIRIA

Preskripzio Tekniko Partikularren Agiria da errepideen eta zubien obretarako Preskripzio Tekniko Orokorren Agiriaren dokumentua osatu eta argitzeko agiria.

Kapitulu hauek izango ditu:

ACTAb2129846-808f-4188-83dc-2f39cd01421e

- Obren deskribapena
- Materialak
- Obra unitateak
- Neurketa eta ordainketa
- Xedapen orokorrak

Errepide eta zubien obretarako (PG3) Ezaugarri Tekniko Orokorren agirian ezarri gabeko puntuak bakarrik zehaztuko dira bertan, edo agiri horretan hautabideak eskaintzen badira, horietako bat hautatuko du.

Horretarako, agiriko kapitulu, artikulu, atal eta azpiatalak zehatz-mehatz bat etorriko dira Errepide eta Zubien Obretarako Ezaugarri Tekniko Orokorren Agirikoekin (PG3); hala, artikulu jakin bati erreferentzia egiten ez bazaio, azken agiri horretan xedatutakoa nagusituko da.

Beraz, PG3an xedatu gabeko materialei edota obra unitateei buruzko artikuluek zenbaki ezberdina izango dute, eta dagokien kapituluan agertuko dira.

Obren deskripzioari dagokionez, obrak nola eraiki beharko diren azalduko da batez ere, obra unitateen arteko sekuentzia eta lotura adieraziz, baita planoek zehaztu gabeko bestelako edozein alderdi ere.

9.4. 4. DOKUMENTUA: SEGURTASUN ETA OSASUN AZTERLANA

Segurtasun eta osasun azterlana idazteko, obrako lan-arriskuak identifikatu eta ebaluatuko dira, eta arrisku horiek saihesteko edo minimizatzeko prebentzio, teknika eta antolaketa neurriak zehaztuko dira.

1627/1997 Errege Dekretua betez, honako egitura hau izango du:

- Azalpen txostena
- Baldintza Partikularren Agiria
- Planoak
- Neurketak eta aurrekontua

Segurtasun eta Osasun Azterlana gaitutako teknikari batek idatziko du, eta barne hartuko ditu behar diren xehetasun eta analisiak, kontratistak ondoren segurtasun eta osasun plana egin dezan. Era berean, zorrotz jarraituko zaio Sustapen Ministerioaren “Recomendaciones para la redacción de Estudios de Seguridad y Salud en obras de carretera” agiriari.

9.5. 5. DOKUMENTUA: AURREKONTUA

Proiektuaren Aurrekontua idazteko, obren azterlan bat egingo da, horiek egiteko lantalde egokienak zehazteko, eta obrak behar bezala egiten direla bermatzeko.

Orientabide gisa, neurketak eta aurrekontu partzialak egiteko, kapituluak honela banakatzea proposatzen da.

- Aurretiazko lanak.
- Zabalguneak.
- Drainatzea.
- Zoruak.
- Seinaleak eta balizak.
- Zerbitzuen berrezarpena.

ACTAb2129846-808f-4188-83dc-2f39cd01421e

- Ingurumen-inpaktua zuzentzeko neurrien aurrekontua
- Segurtasun eta Osasun Azterlanaren aurrekontua.
- Hondakinak Kudeatzeko Azterlanaren aurrekontua.

Kapitulu horiek aurrekontu orokor hauekin osatuko dira:

- Obra materialki egiteko aurrekontua.
- Obra kontrata bidez egiteko aurrekontua.

10. DOKUMENTUA AURKEZTEA

Kontuan hartu behar da, 21/2004 Foru Dekretuak, martxoaren 8koak, 16. artikuluan (2., 3. eta 4. atalak) xedatutakoaren arabera, proiektua idazteko adjudikaziodunak paperean zein euskarri informatikoan aurkeztu behar dituela, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan, bai memoria, bai planoak.

Harrera akta formalizatzeko eta ordainketa agiria emateko, nahitaezko betekizunak izango dira dokumentuak entregatzea eta kontratuaren zuzendaritzaren onespena jasotzea.

10.1. Paperezko dokumentazioa

Teknikari eskumendunak sinatu beharko du proiektua. Proiektu bakoitzeko bi ale bat entregatu beharko dira. Formatua kontratuaren zuzendaritzak erabakiko du, haren edukiaren eta bolumenaren arabera.

10.2. Euskarri informatikoa

Proiektuko bi bertsio entregatuko dira euskarri informatikoan (CD edo DVD), bata lanerako eta bestea artxibatzeko eta kontsultatzeko. Bertsio horietako bakoitzetik bost ale emango dira.

Lanerako bertsioa osatuko dute garatzeko erabilitako aplikazioetako formatu manipulagarrian dauden fitxategiek (dwg marrazkientzat, Microsoft Wordeko doc formatua testuentzat); horrela, aldaketak egin ahal izango dira, beharrezkoa izanez gero.

Artxibatu eta kontsultatzeko bertsioa Adobe Acrobat-en PDF (Portable Document Format) formatuko fitxategiek osatuko dute, eta direktorioetan egituratuta egongo dira, Departamentuan Dokumentu Kudeaketa Sistema gisa ezarritako programan kargatzea errazagoa izan dadin.

Modu honetan egituratuta egongo dira:

- MEMORIA ETA ERANSKINAK izenburua duen azpidirektorio batean, proiektuaren memoria jasotzen duen fitxategia sartuko da, eta aurreproiektuaren eranskin bakoitzeko azpidirektorio bat ezarriko da, dagokion eranskinaren izen osoaz izendatuta. Eranskinen azpidirektorio bakoitzean jasoko dira hura osatzen duten fitxategi guztiak. Fitxategi horietako bakoitzaren izena planoaren edo laminaren izen osoa izango da.
- PLANOAK izeneko azpidirektorioan, proiektuaren 2. dokumentuko plano guztiak bilduko dira. Fitxategi bakoitzaren izena izango da planoaren izen osoa, proiektuan duen zenbakia aurretik duela. Beharrezkoa izanez gero, planoak azpidirektorioetan egituratuko dira, plano multzoen arabera. Plano osagarriak edo kanpoko erreferentzietarakoak jasoko dira planoak izeneko azpidirektorio horretatik ateratako beste azpidirektorio batean. Gainera, planoen aurkibidea erantsiko da.
- PLIEGO izeneko azpidirektorio batean Preskripzio Tekniko Partikularren Agiria duen fitxategi bat sartuko da, sortu den programaren jatorrizko formatuan (DOCX).
- SEGURTASUNA ETA OSASUNA izeneko azpidirektorio batean, proiektuaren Segurtasun eta Osasun Azterlanari dagozkion fitxategiak sartuko dira, sortzeko erabili den programaren jatorrizko formatuan (DOCX, PRESTO, etab.).

ACTAb2129846-808f-4188-83dc-2f39cd01421e

- AURREKONTUA izeneko azpidirektorio batean, proiektuaren aurrekontuari dagozkion fitxategiak jasoko dira, programa informatiko espezifiko batean eginak (PRESTO, ...) Azpidirektorio horretan jasoko dira, halaber, neurketen zerrenden, prezioen taulen eta aurrekontuaren TXT edo DOC fitxategiak, eta aurrekontua jasoko duen fitxategi bat, Microsoft Exceleko XLS formatuan.
- BESTELAKOAK izeneko azpidirektorio batean, proiektua garatzeko erabili den informazio interesgarri guztia entregatuko da, informazio hori sortzeko erabilitako programaren formatuan (DOCX, DWG, XLS eta abar), ahal bada, eta, ezinezkoa bada, PDF formatuan. Lanaren zuzendariak definitu ahal izango du, beharrezkoa izanez gero, zein dokumentu jaso behar diren atal horretan. Interes berezia izango dute aztertutako eta alde batera utzitako irtenbideek, alegia, aurreproiektuan jasotzen ez direnek, erabilitako hiri antolamenduko azterlanak, proiektua idazteko beste administrazio edo entitate publiko edo pribatu batzuekin izandako harremanei buruzko dokumentazioa, eta abar.

Dokumentu Kudeaketarako Sisteman kargatzeko, oso garrantzitsua da karpeten izenak errespetatzea, adierazitako sintaxi berarekin:

- Memoria eta eranskinak
- Planoak
- Baldintza Agiria
- Segurtasuna eta Osasuna
- Aurrekontua
- Bestelakoak

10.3. Fitxategien ezaugarriak

Euskarri informatikoan entregatutako fitxategiak Gipuzkoako Foru Aldundiaren jabetzan geratuko dira. Edozein fitxategi, dagoen formatuan dagoela, manipulatzeko moduan egongo da, eta, beraz, ez da babestuta egongo.

PDF fitxategiak, ahal bada behintzat, PDF formatura pasatakoak izango dira. Hori ezinezkoa denean, digitalizaziotik edo eskaneatzetik etor daitezke.

11. IDAZTEKO EPEA

Dokumentua idazteko eta entregatzeko, gehienez ere **HIRU (3) HILABETEKO EPEA** egongo da.

Lanak hasten direnetik gehienez ere hilabete eta erdiko (1,5) epean, proiektuaren hasierako azterlana eta analisia entregatuko dira. Horretarako, honako hau egin beharko da:

- Eskuragarri dagoen dokumentaziorako (2007ko eraikuntza-proiektua eta egungo egoeraren 2025eko txostena) proposatzen diren aldaketak zehaztu.
- Bizikleta bidearen behin betiko ibilbidea zehaztu, Gure Ametsa jatetxearen inguruneari arreta berezia jarriz.
- Bizikleta bidearen eta GI-627 errepidearen arteko gurutzagunearen bideragarritasuna aztertu (2007ko proiektuan aurreikusten zen beheko igarobidea egin gabe), eta eremu horretan dagoen seinaleztapena hobetu.
- Ibilbidearen eremu ez-egonkorrak zehaztu, eta kasu bakoitzerako proposatzen diren egonkortze irtenbideak deskribatu.

Proiektua idazteko epea amaitu baino hilabete bat (1) lehenago, lanaren zirriborroa aurkeztuko zaio proiektuaren zuzendaritzari. Horrela, hark txostena aztertu ondoren, beharrezko doikuntzak egin, editatu eta behin betiko dokumentua proiektua idazteko epearen barruan entregatuko da.

ACTAb2129846-808f-4188-83dc-2f39cd01421e

12. KONTRATUAREN PREZIOA

Baldintza agiri honen xede den lanak 33.360,38 euroko aurrekontua izango du gehienez, eta horri 7.005,68 € (% 21eko BEZa) gehituta, 40.366,06 eurokoa (BEZa barne) izango da zenbatekoa guztira.

Zenbateko horren barruan sartzen dira kontratua zuzen egikaritzeko behar diren gastu guztiak, baita haren ondoriozko zerga, tasa eta tributu guztiak ere.

13. LANEN ORDAINKETA

Lanak enpresa kontsultoreak igorriko dituen fakturen bidez ordainduko dira, honako mugarri hauen arabera:

- P.A. Proiektuaren idazketaren ordainketa osoarena:
  - Oroharreko partidaren zenbatekoaren % 30, proiektuaren hasierako azterketa eta analisia entregatzean.
  - Oroharreko partidaren zenbatekoaren % 70, kontratuaren emaitza jasotzean.

ACTAb2129846-808f-4188-83dc-2f39cd01421e

1. ERANSKINA - JUSTIFIKAZIO EKONOMIKOA

Banakapena, 10. atalean ("Kontratuaren prezioa") aplikatutako proiektua idazteko ordainketa-partida justifikatzeko

LANGILEAK	AURREIKUSTEN DEN ARDURALDIA	HILABETEAK	UNITATEKO PREZIOA	GUZTIRA
Teknikari bat, Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniaritzako edo Ingeniaritza Zibileko ikasketak eta master titulua dituena, zuzendaritzan eta proiektu idazketan esperientziarekin	% 5	3	8.000,00 €	1.200,00 €
Teknikari bat, Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniaritzako edo Ingeniaritza Zibileko ikasketak dituena, proiektu idazketan esperientziarekin.	% 10	3	7.500,00 €	2.250,00 €
Teknikari bat, Herri-lanetako Ingeniaritza Teknikoko edo Ingeniaritza Industrialeko ikasketak dituena edo Ingeniaritza Zibileko Gradua duena, proiektua idazten laguntzeko.	% 35	3	7.000,00 €	7.350,00 €
Delineatzaile proiektugilea, lan horietan esperientzia duena	% 20	2	4.530,00 €	1.812,00 €
Administraria, lan horietan esperientzia duena	% 20	2	3.700,00 €	1.850,00 €
Baliabide osagarriak			1.000,00 €	1.000,00 €
			BATURA	**15.462,00 €**
			Gastu orokorrak % 13	2.010,06 €
			BATURA	17.472,06 €
Kanpoko azterlanak (topografia, geologia eta geoteknia, argiztapena, ingurumena...)				14.000,00 €
			BATURA	31.472,06 €
			Mozkin industriala % 6	1.888,32 €
			GUZTIRA	**33.360,38 €**

ACTAb2129846-808f-4188-83dc-2f39cd01421e

2. ERANSKINA - ESKORIATZAREN ETA ARABAKO MUGAREN ARTEKO BIZIKLETA BIDEA ERAIKITZEKO PROIEKTUAREN ABIAPUNTUKO SOLUZIOA, AZTERTUTAKO TARTEAN

Proiektuaren aurretiazko azterketa errazteko, honako dokumentazio hau ematen da:

- 2007ko planoak, “Eskoriatza-Arabako muga tarteko bizikleta-bidearen zatia eraikitzeko proiektuari” dagozkionak:
  - 1. DOKUMENTUA Plataformaren egungo egoeraren oinplanoa
  - 2. DOKUMENTUA Trazaduraren, drainatzearen eta fabrika-obren oinplanoa
  - 3. DOKUMENTUA Sekzio tipoak eta aurreikusitako jarduketak
  - 4. DOKUMENTUA Sekzio tipoak eta aurreikusitako jarduketak Lerradura eremuetako jarduketak. Kokapenaren oinplanoa.

- “Eskoriatza-Arabako muga arteko bizikleta-bidearen zatia eraikitzeko proiektuaren plataformaren gaur egungo egoerari buruzko azterketa”-n jasotako 2025eko planoak eta aurrekontuak:
  - 5. DOKUMENTUA: 2025eko aurrekontu eguneratua.
  - 6. DOKUMENTUA: Plataformaren egungo egoeraren oinplanoa.

EKS | CSV: ACTAb2129846-808f-4188-83dc-2f39cd01421e
Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://egoitza.gipuzkoa.eus/eks
Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://egoitza.gipuzkoa.eus/csv

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:	PLT-C-2026-0022 - PLT_V2_EU.pdf

Digitalki sinatua / Firmado digitalmente por:

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

ITURBE GARMENDIA, IBONE

ET, HERRILANAK
TM OBRAS PÚBLICAS

Data / Fecha: 2026/10/22 13:54:45

Sinatzailea 2 / Firmante 2:
LUZURIAGA MOCOROA, Susana - Bide Azpiegituren Birgaitze Zerbitzuko eta Bulego Teknikoko Burua / Jefa del Servicio de Rehabilitación de Infraestructuras Viarias y Oficina Técnica
Data / Fecha: 2026/10/22 16:24:55